

DIRU-ITURRIAK

Garrantzitsua da jakitea zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden bezeroak eskaintzen diegunaren truke.

- **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Gure zerbitzua harpidetzen bidez dijoa. Prezioak hurrengoak izango lirateke.

- Lehenengo aukera: hilabete bateko harpidetza 9,99€koa da eta horren truke 5 jostailu erosi ahalko ditu harpidetu den pertsona horrek, dugun katalogo guztitik, berari gehiago gustatu zaizkionak.
- Bigarren aukera: hilabete bateko harpidetza 19,99€koa izango litzateke 11 jostailu erosi nahiko blituzke.
- Hirugarren eta azken aukera: gure zerbitzurik garestiena, ume asko dituen familia batentzat, edo lagun kuadrilla batean denen artean erosi ahal izateko aukerarik onena. 29,99 € an harpidetu ondoren, 22 jostailu erosi ahal izateko ahalmena bermatuko dizuna.

Harpidetzak hilabeteka funtzionatzen du. Lehenengo aldiz harpidetzen zarenean, hilabetero ordaindu beharko duzu aukeratu duzun kantitate hori eta aspertzen zeranean edo ez duzunean zerbitzu hau gehiago erabili nahi, harpidetza ezeztatu eta kitto, ez zaizu gehiago kobratuko.

Gainera, gure zerbitzuak abantaila bat du. Jostailuak erabiltzeaz aspertu zeranean, edota jostiluez gain, beste edozein gauza, etxean hautsa hartzen dagoena, guri bidaldu eta guk "Save The Children" konpainiari bidalduko genioke eta gero beraiek arduratuko lirateke beharra duten umeei gauzak emateko. Jokaera hau kausa on batentzat izango zen eta gure ustez horrek asko balio du, azken finean zuk behar ez duzun edo denbora batera erabiltzen ez duzun gauza bat guri itzultzean, benetan behar duten pertsonak izatea izugarria da.

Lehenago aipatu bezala, "Save The Children" konpainiarekin kolaboratzen dugu eta horrek onurak ekartzen dizkigu. Oso konpainia esanguratsua denez, pertsona "ezagun" askok publizitatea egiten diote, sare sozialetako "influencer"ak esaterako. Hori gure zerbitzua ezagutzera emateko tresna on bat da. Horrez gain, orain hain modan dagoen Instagram sare sozialeko gure kontu ofiziala ere badugu, eta gurasoek gehiago erabiltzen duten FaceBook kontu bat ere.

Gure irabazien %50a Save The Children erakundearentzat dijoa. Beraz, esan dezakegu, enpresa konprometitu bat garela (ESK).



**Save the
Children**